Horretarako, berriz, hilabete izango da, honako hau argitaratu edo honen berri eman eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 7a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**2968**

**197/2009 FORU AGINDUA, apirilaren 15ekoa. Honen bidez, behin betiko onarpena ematen zaio Ollavarreko (Iruña Oka) SAU-02 sektoreko plan partziala aldatzeko espedienteari.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Iruña Okako Udalak hasierako onarpena ematea erabaki zuen Ollávarreko SAU-02 sektoreko plan partziala aldatzeko espedienteari, 2008ko abenduaren 10ean, baita hogei egun jendaurrean jartzeari ere, eta horretarako iragarki bana jarri zen 2009ko urtarrilaren 28ko ALHAOn (12 alea), 2009ko urtarrilaren 26ko Diario de Noticias de Álavan eta udaletxeko iragarki taulan.

Hasierako onarpenari buruzko erabakia Montevite eta Ollavarreko administrazio batzarrei jakinarazi zitzaien, 2009ko urtarrilaren 20an eta 21ean, hurrenez hurren.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean, ez zen alegaziorik aurkeztu, udalbatzak 2009ko martxoaren 11n egindako osoko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari, eta Arabako Foru Aldundira igorri zuen, behin betiko onarpena eman ziezaioten. Espedienteari 2009ko martxoaren 25ean eman zitzaion sarrera foru aldundian.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Espediente honen bidez proposatzen dena da aldatzea bizitegitarako SAU-02 sektoreko plan partzialaren, Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuaren urtarrilaren 22ko 28/2007 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartutakoaren, kalifikazio xehatua.

Hain zuzen ere, kalifikazio horrek espazio libreen azpizona eta babes publikoko etxebizitzena bata bestearen lekuan jartzen ditu. Azpizonak lekuz aldatzearekin lortzen dena da espazio libreen kokagunea 2.491 $m^2$ arte handitzea.

Bigarrena.- Agiri teknikoak aztertu ondoren, udalaren interesari baino ez diola eragiten ziurtatu da, baita hirigintza legedia betetzen duela ere, hala funtsezko edukian hala forman.

Era berean, espedienteak aipatutako legedian ezarritako izapideak izan ditu.

Horregatik, dauzkadan ahalmenak baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Behin betiko onarpena ematea Ollavarreko SAU-02 sektoreko plan partziala aldatzeko espedienteari, udalerri horretako udalak sustatu eta izapidetutakoari.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Aukeran, eta aipatutako errekurtsoa jarri aurretik, berraztertzeko errekurtsoa ebazpena eman duen organoaren aurrean. Horretarako, hilabete izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 15a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 7 de abril de 2009.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**2968**

**ORDEN FORAL 197/2009, de 15 de abril, de Aprobación definitiva del expediente de Modificación del Plan Parcial del sector SAU-02 de Ollavarre, municipio de Iruña de Oca.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 10 de diciembre de 2008 el Ayuntamiento de Iruña de Oca acordó aprobar inicialmente el expediente de modificación del Plan Parcial del Sector SAU-02 de Ollavarre, así como someter el mismo, a información pública por el plazo de veinte días, hecho que fue practicado mediante anuncios en el BOTHA núm. 12, de 28 de enero de 2009, en el Diario de Noticias de Alava de 26 de enero de 2009 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

El acuerdo de aprobación inicial fue notificado a las Juntas Administrativas de Montevite y Ollavarre, los días 20 y 21 de enero de 2009 respectivamente.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada ninguna alegación, procediendo el Ayuntamiento pleno, en sesión del día 11 de marzo de 2009, a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Alava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 25 de marzo de 2009.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El presente expediente propone la modificación de la calificación pormenorizada del Plan Parcial del Sector Residencial SAU-02, aprobado definitivamente mediante la Orden Foral 28, de 22 de enero de 2007, de la Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente.

En concreto, aquél intercambia la ubicación de la subzona de espacios libres y la de viviendas de protección pública, con la particularidad de que en ese trueque la dotación de espacios libres se incrementa en 2.491 $m^2$.

Segundo.- Analizada la documentación técnica se ha comprobado que, afectando a interés estrictamente municipal, cumple la legislación urbanística tanto en lo que se refiere a su contenido sustantivo como en el formal.

Asimismo, el expediente ha sido sometido al trámite indicado en la mencionada legislación.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de modificación del Plan Parcial del Sector SAU-02 de Ollavarre, promovido y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 15 de abril de 2009.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.